
UDAL ASANBLADAK UDAZKENA 2011

ASAMBLEAS MUNICIPALES OTOÑO 2011

LANDA EREMUA ENTORNO RURAL

ABENDUAK 12 DICIEMBRE 19:00h

HERRIKO PLAZAKO ARETOAN SALA DE CONFERENCIAS MUNICIPAL

AURRETIKO INFORMAZIOA INFORMACIÓN PREVIA

Orri honen bidez LANDA EREMUKo udal auzo asanblada prestatzeko baliogarria gerta litekeen material bat eskaintzen da. Auzokideek asanblada nola garatuko den argi izan eta aurreko urteetako asanbladetan jorratutako gaiak oroitarazteko informazioa luzatzea da asmoa.

Era berean, aurrera begirako proposamenak egiteko erreferentzia egokia izango delakoan, 2009 eta 2010 urteetan ospaturiko asanbladetan jorratutako gaien laburpen bat ere jasotzen da.

Mediante esta hoja, se ofrece un material que sirva para preparar la asamblea municipal de ENTORNO RURAL, de manera que los vecinos puedan tener una idea clara de cómo será el desarrollo de la misma, y posean además información para refrescar los temas tratados en años anteriores.

Se ha realizado un extracto de los temas tratados en las asambleas de 2009 y 2010, entendiendo que estas pueden ser una referencia suficiente para proponer temas de cara al futuro.

LANDA EREMUKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DEL ENTORNO RURAL 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

2009KO LANDA EREMUKO UDAL ASANBLADAN JORRATU- TAKO GAIAK

ASISTENTZIA: 7 lagun (5 gizon eta 2 emakume)

Auzokideek honako gai hauek plazaratu zituzten.

DONA LUTZIA: landa gunean gauzatu den bide edo ibilbide berdea positiboki baloratzen da baina bere bukaeran, Dona Lutzian, ingurua oso egoera eskasean dagoela aipatzen da eta bertatik abiatzen diren ibilbide gehiago burutzea proposatu. Udalak ingurua enplegu tailer baten bidez egokituko dela erantzuten du.

IKASTOLAKO GUNEA: egoera kaskarrean dagoen Vallehermosoren lurretan eraikiko den galdetzen da, bertan Ikastola azpian, harrizko behin-behineko aparkaleku bat jartzeko aukera proposatuz. Udalak jada lizentzia badutela erantzuten du. Erre zen pinudiaren inguruan botilatzen praktikatzeko jakinarazten da. Udalak gune hori zuhaitz hostotsuekin birlandatzeke asmoa duela adierazten du.

BASERRIAK: Morteru baserrirako errepidean zuloak daude. Dona Lutzian baserrietan udan ur arazoak daude, eta hau antza ur bilketa partikularrek eragindako egoera dela aipatzen da. Aukera bat horietako batzuk itxi eta zerbitzua taldeka emateko ur bilketa batzuk elkartzea litzateke.

ESKOLA GARRAIOA: Hezkuntza Sailari plazak libre ditzuten autobusek landa guneko gazteak har ditzaten eskaera egin zaio.

ETXEBARRIKO GUNEA: Etxebarrainoko espaloiri buruz, bi aldeetan egin daitezkeen galdetzen da. Udalak behetik zubiraino egingo dela erantzuten du.

PERMUTEN GAIA: Ondareen Aholkularitza Teknikoaren bidez permuten gaia aurreratuta dago eta espediente guztiak tramitean dauden arren, tramitazioak bere epeak ditu. Nekazaritzak hilabeteak behar ditu baina Mendi Arloak beharbada urte bete baino gehiago. Printzipioz abendurako Iñarrondo eta Ameztuiko permutak eginda egin daitezkeela aipatzen da.

BAZTERIZAR GUNEA: bertako oinezko bidea berreskuratuko den galdetzen da (aukera hori ez dela planteatu erantzuten da).

OROKORRA: Aurreko asanbladetan planteatutako gaiak konpondu ez izanagatik haserrea agertzen da (zuloak, Ikastolan gaizki aparkatutako kotxeak, zaborrontzien kokapena aldatu ez izana...). Landa gunea gainerako herriko gunek bezala argizatzea eskatzen da (Udalak momentuz ez du inolako egitasmorik). Barreiatutako etxebizitzetako postontziak oso ahulak direla adierazten da, horietako asko puskatu eta konpondu gabe daudelarik. Horietako batzuk soberan daudela eta ez zaintzeak itxura txarra ematen duela gaineratzen da. Biribilgune eta oinezko pasagune batzuei buruz ere galdetzen da. Errepide zein paperezko zaborrontzietan egindako lana oso positiboki baloratzen da. Sasiak garbitzeko planik dagoen edo erabiltzaile bakoitzak norbanako gisa zerbitzua eskatu behar duen galdetzen da (Udalak egun planik ez dagoela eta dauden baliabideekin burutzen dela erantzuten du).

TEMAS ASAMBLEA MUNICIPAL DE ENTORNO RURAL 2009

ASISTENCIA: 7 personas (5 hombres y 2 mujeres)

SANTA LUCÍA: se valora positivamente la vía o ruta verde realizada en el ámbito rural pero se considera que, allí donde acaba, en Santa Lucia, el entorno se encuentra muy degradado, por lo que se propone hacer más rutas que tengan ese punto de partida. El Ayuntamiento responde que se va a tratar de acondicionar la zona mediante un taller de empleo.

ZONA IKASTOLA: se pregunta si se va a construir en el solar que tiene Vallehermoso, zona ahora degradada, donde se podría instalar un aparcamiento provisional de grifo debajo de la ikastola. El Ayuntamiento responde que ya cuentan con la licencia. Se informa que en torno al pinar que se quemó se practica el botellón. El Ayuntamiento responde que la idea es repoblar con frondosas.

CASERIOS: hay baches en la carretera al caserío Morteru. En los caseríos de Santa Lucia hay problemas de agua en verano, y esto al parecer se debe a las captaciones particulares que existen. Una solución sería cerrar algunas y juntar varias captaciones para dar el servicio conjunto.

TRANSPORTE ESCOLAR: se ha solicitado al Departamento de Educación que se recoja a jóvenes del entorno rural en los autobuses con plazas libres.

ZONA ETXEBARRI: se pregunta sobre la acera hasta Etxebarri, si se podría hacer a ambos lados. Respuesta del Ayuntamiento: se va a hacer desde abajo hasta el puente.

ASUNTO PERMUTAS: El tema de las permutas está avanzado por medio de la Asesoría Técnica de Patrimonio y todos los expedientes están en trámite, pero estos trámites tardan. Agricultura tarda meses pero el Área de Montes quizás más de un año. En principio para diciembre podrían estar las permutas de Iñarrondo y Ameztoi.

ZONA BAZTERIZAR: se pregunta si se va a recuperar el camino peatonal de Bazterizar (se responde que no se ha contemplado).

GENERAL: se muestra el enfado por no arreglar cuestiones planteadas en anteriores asambleas (baches, coches mal aparcados en la ikastola, no se ha cambiado la ubicación de los contenedores...). Se solicita que la zona rural se ilumine como el resto del pueblo (el Ayuntamiento no tiene de momento ningún proyecto). Se señala que los buzones instalados para las casas diseminadas son muy débiles y muchos están rotos y no se han arreglado. Además algunos sobran y al no cuidarse dan mala imagen. También se pregunta sobre rotondas y pasos peatonales. Se valora muy positivamente la limpieza realizada tanto de caminos como de los contenedores de papel. Se pregunta si existe algún plan de desbroce o si cada usuario debe pedir de forma particular el servicio (el Ayuntamiento responde que actualmente no existe ningún plan y que se aborda con los recursos existentes).

LANDA EREMUKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DEL ENTORNO RURAL 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

2010EKO LANDA GUNEKO UDAL ASANBLADAN JORRATUTAKO GAIAK

ASISTENTZIA: 5 lagun (3 gizon eta 2 emakume)

HAPOaren aurrerapenari buruzkoak ez dira laborpen honetan jaso, gaur gaurkoz honen garapena zein izango den ez baita ezagutzen. Edozein kasu gai honek asanblada eta berariako bilerekin prozesu partehartzaile propio bat jarraituko du.

SUGEZU: auzokide batek bere baserrirako errepide zati baten garraio enpresa batek zulo handiak egin dituela aipatzen du. Duela hiru urte farola bat eskatu eta oraindik jarri ez delako kexua agertzen du. Udalak aipatu errepide zati horren titularra Okondoko Udala dela dio eta berari dagokiola konpontzea. Farolari buruz Hirigintza Arlotik jarraitzen den irizpidea argia etxetik konektatuta egotea eta jabea elektrizitatearen kargu egitearena dela aipatzen da, Udalak mantenua beregain hartuz. Auzokideak Laudioko Udalak errepide horren konponketa beti beregain hartu duela aipatzen du eta farolei buruz ezarritako irizpidea betetzeko prest agertu.

DONA LUTZIA: auzokide batek apaizaren etxeari zein erabilera emango zaion galdetzen du eta Udalak errestaurazio edo aterpetxe gisa erabilia izan dadin eraikina konpontzeko asmoa duela agertzen du (oraindik egitasmo definiturik ez dagoela gaineratuz). Hilerraren parean aparkaleku gune bat jartzeko partzela bat erosi dela azaltzen da. Elurte denboralarako Dona Lutzia bihurgunetako garbiketa eremua handitzeko aukera planteatzen da, auzorako sarbidea zailtzen baita. Udalak bideragarritasun teknikoaz aztertzeko konpromisoa hartzen du.

OSTENKO: auzokide batek aurtengo elurteetan egindako garbiketa bere iritziz eskasa izan dela eta kexua agertzen du, bere baserrirako sarbidea eragotzi baitzuen. Era berean, elurra kentzeko lanak Dona Lutzian hastearren arazoiekin buruz galdetzen du. Aurreikuspen falta eta gatz erreserbak agortu izana kritikatzeko du. Udalak traktoredunek beraien jarduna landa guneko irizpide propioekin hasten dutela erantzuten du, baina urtarrilaren 10eko ezohiko elurtean kotxe ilara ikusgarri bat Amurrio eta Urduñarako autopista irteeran kolapsatuta gera ez zedin Zumalakarregi eta Nerbioi kalean elurra kentzeko lanari lehentasuna eman behar izan zitzaioela gaineratuz (Udalak zeregin horretarako hiru baserritarrekin kontaktatzen du).

OROKORRA: Udalak baimendu gabeko zabortegietara jaurtitako obra-hondakinak berrikusteko konpromisoa hartzen du.

TEMAS ASAMBLEA MUNICIPAL DE ENTORNO RURAL 2010

ASISTENCIA: 5 personas (3 hombres y 2 mujeres)

SUGEZU: una vecina señala que una empresa de transportes ha producido enormes baches en un tramo de la carretera de acceso a su caserío. También se queja de que hace tres años solicitó una farola y que aún no se ha puesto. El Ayuntamiento responde que ese tramo de la carretera es de titularidad municipal del Ayuntamiento de Okondo y que, corresponde al mismo la reparación. Con relación al tema de la farola, desde el Área de Urbanismo se comenta que el criterio que se sigue es que la luz esté conectada desde la casa y que, mientras el propietario se hace cargo del consumo eléctrico, el Ayuntamiento se encarga del mantenimiento. La vecina contesta que el Ayuntamiento de Laudio siempre se ha encargado del arreglo de la carretera y que está dispuesta a cumplir con el criterio relativo a las farolas.

SANTA LUCÍA: un vecino pregunta por la utilidad que se va a dar a la casa del cura a lo que el Ayuntamiento responde que se quiere restaurar el edificio y destinarlo a restauración o albergue (informando que todavía no existe un proyecto definido). Recientemente se ha comprado una parcela para poner un área de aparcamientos a la altura del cementerio. También se plantea si se puede dar más amplitud de limpieza a las curvas de Santa Lucía, en casos de temporal de nieve, porque dificulta el tránsito al barrio. El Ayuntamiento se muestra dispuesto a estudiar la viabilidad técnica.

OSTENKO: una vecina se queja de lo que a su juicio es una limpieza insuficiente de la nieve durante este año pasado, lo que impidió el acceso a su caserío. También pregunta por las razones que llevan a iniciar la retirada de la nieve en Santa Lucía. Critica la falta de previsión y que se hubiera agotado la reserva de sal. El Ayuntamiento responde que los tractoristas comienzan su trabajo con criterios propios en el área rural, pero que en la nevada excepcional del 10 de enero, se tuvo que dar prioridad a retirar la nieve en Zumalakarregi y la Calle Nervión para que una caravana espectacular no quedara colapsada en la salida de la autopista hacia Amurrio y Orduña. (el Ayuntamiento cuenta con un dispositivo de tres baserritarras).

GENERAL: el Ayuntamiento se compromete a revisar los vertidos de desescombros en vertederos no autorizados.

LANDA EREMUKO UDAL ASANBLADA 2011. ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA

ASAMBLEA MUNICIPAL DEL ENTORNO RURAL 2011. INFORMACIÓN PREVIA.

GAIORDEN PROPOSAMENA:

- 1.- Gaiorden proposamenaren onarpena.
- 2.- Hurrengo auzo asanbladen mekanismoari buruzko iritziak eskatuko ditu Udalak.
- 3.- Ekaineko hauteskunderen ostean sortutako Udalbatza berriaren ostean, Gobernu Taldeko kide batek Udalaren egungo egoeraren berri eman-
go du: egoera ekonomikoa, orain arte emandako urratsak, Aldundia eta gainerako erakundeekin izandako harremanak eta abar. Urteko kudeaketa txostena burutzeari buruzko informazioa.
- 4.- Galdera, zalantza eta kritiketarako auzokideen-
tzako txanda irekia. Gaiak taldekatzen saiatuko da. Helburu nagusia Landa eremuan bizi direnen kezken argazki eguneratua eskuratzea da.
- 5.- Alkatearen, udal teknikarien eta presente dau-
den talde politiko bakoitzeko ordezkari banaren erantzun txanda.
- 6.- Auzokideentzako gaien puntualizazio edo sakontzerako txanda azkarra.
- 7.- Asanbladaren itxiera alkatearen eskutik.

*** Idazkari gisa jardungo duen udal teknikari batek planteatzen diren gai guztien oharrak jasoko ditu, kexu, galdera, ekarpen edo iradokizun gisa sailkatuz.

Beste udal teknikari batek moderatzaile gisa jardungo du.

Asanblada ospatu eta egun gutxira auzoan honako orri honen tankerako bat banatuko da, asanbladaren akta jasoz. Bertan planteatutako gai guztiak jasoko dira, baita bakoitzari emandako erantzunak ere. Horrela, hurrengo asanbladetarako erreferentzia gisa baliogarri izango den euskarri horrekin bertaratzerik izan ez dutenei informazioa luzatu nahi zaie.

PROPUESTA DE ORDEN DEL DÍA:

- 1.- Aprobación de la propuesta de Orden del Día.
- 2.- Solicitud de opinión por parte del ayuntamiento sobre el mecanismo de asambleas de barrio de cara al futuro.
- 3.- Breve presentación de la situación actual del ayuntamiento tras la incorporación de la nueva corporación surgida tras las elecciones de junio: Situación económica, ordenanzas, relaciones con Diputación y otras instituciones, etc. Información sobre la realización de un informe de gestión anual.
- 4.- Turno abierto de preguntas, dudas y críticas por parte de los vecinos y vecinas. Se procurarán agrupar por temas. El principal objetivo es obtener una radiografía actualizada de las preocupaciones de las personas que viven en el entorno rural.
- 5.- Ronda de respuesta del alcalde, de los técnicos municipales y de los grupos políticos presentes.
- 6.- Turno rápido de puntualizaciones o ampliación de cuestiones por parte de los vecinos.
- 7.- Cierre de la asamblea por parte del alcalde.

*** Un técnico municipal que ejercerá de secretario/a, tomará nota de todas las cuestiones que se planteen, clasificándolas como quejas, preguntas, aportaciones o sugerencias.

Otro técnico municipal ejercerá de moderador

Unos días después de la asamblea se buzoneará en la zona una hoja similar a esta donde se recogerá el acta de la asamblea. En ella aparecerán todos los temas planteados así como las respuestas a cada uno de ellos, con el objetivo de informar a quienes no hayan podido asistir, y con la intención de que sirva de referencia para posteriores asambleas.